

Herriari dagokiona orain!!!

Ez gehiago, ez gutxiago, baina premiazkoa da. Hauteskundeetan herritarren babesa izan duen hautagaitza hau 15 hilabete darama kategorrian, zerrendaburu hautatuari bere izaera ukatzen zaio egunero eta euren borondatea adierazi zuten hautesleak milurte hasiera honetako iruzurrik handienetakoa pairatzen ari dira. Non dago pertsona horiek hautatutako zinegotzia? Non udal talde politikoa?

Kategorrian izan arren Getxo Bizia eta Getxo Biziko hautetsia euren lana egiten ari dira, ia-ia bitartekorik gabe baina duintasunez eta kemenez. Uzten zaigunean gure iritzia azaltzen dugu udal batzarretan, herritarrek parte hartzeko dituzten aukera urriak baliatzen ditugu kritikatu eta bestelako irizpideak azaltzeko eta hainbat gairen inguruan ere gure proposamenak plazaratzen ditugu. Hori bai, besteek dituzten informazio-bideak ukatu egiten zaizkigu, ez zaigu eztabaidetan parte hartzen uzten eta bozketak barreraren bestaldetik ikusi baino ezin ditugu egin. Aparte gaude, apartheid egoeran. Eta nahikoa da. Emaiguzue behingoz lapurto diguzuen zinegotzi postua.

Frankismoaren oinordekoak eta euren aliatu berriak direnak, PP eta PSOEk dute ardurarik handiena, zalantzarik gabe. Euskal Nazioa ukatzea ezinezko egiten ari zitzairenean, euskal abertzaletasuna gardenkien aldarrikatzen dugunak eskubidez gabetzen lortu nahi izan dute ukazioaren jarraipena. Baina horrela ere ez dute lortuko eta oinarrizkoenak diren eskubideak mespretxatuz eta bortxatuz euren hilobi politikoa egiten ari dira.

Ni más, ni menos, pero es urgente. Esta candidatura con apoyo electoral en las urnas lleva 14 meses en la calle, a la cabeza de lista electa se le niega su condición y quienes apoyaron en las urnas a Getxo Bizia están sufriendo uno de los mayores fraudes de este principio de milenio. ¿Dónde está la concejal elegida por todas esas personas? ¿Dónde su correspondiente grupo político municipal?

A pesar de estar en la calle Getxo bizia y la electa de Getxo Bizia están haciendo su trabajo, casi sin medios pero con dignidad y empeño. Cuando se nos deja exponemos nuestra opinión en los plenos, aprovechamos las escasas vías de participación ciudadana para criticar y para mostrar otros criterios, y también hacemos propuestas en torno a diferentes temas. Eso sí, se nos niega el acceso a la información que tienen los demás, no se nos deja participar en los debates, y las votaciones sólo las podemos ver desde este otro lado de la barrera. Estamos aparte, en el apartheid. Y ya vale. Devolvednos de una vez el puesto de concejal que nos habéis robado.

Los herederos del franquismo y sus nuevos aliados, PP y PSOE, tienen sin duda alguna la mayor responsabilidad. Cuando se les estaba haciendo imposible negar la Nación Vasca, optaron por anular los derechos de quienes más nítidamente practicamos el abertzalismo vasco, para así poder continuar con la negación. Pero ni aún así lo conseguirán, y despreciando y violando los más elementales derechos están cavando su propia tumba política.

**Tras más de un año de
Apartheid, ya es hora de
atender a la voluntad popular**

Hauteskunde emaitzak eta Getxoko udal batzarra

Beheko tauletan ikusten denez, 2003ko maiatzeko udal hauteskunde emaitzen arabera Getxo Bizia hautagaitzari zinegotzi postu bat dagokio eta herritarren bozak aintzat hartuz, betiere erabili ohi den ordezkaritza banatzeko sistema (D'Hont legea) erabiltza, Getxoko udal batzarra era honetan osatu behar da: 11 EAJ-EA (EAJ 9 eta EA 2), 9 PP, 3 PSE, 1 EB-Berdeak, 1 Getxo Bizia. Getxoko udal batzarrean 25 hautetsi izanik, orain Getxo Biziaren aulkia okupatzen duen EB-ko bigarren kideak hartu duen postua Getxo Biziaren esku utzi behar du.

Resultados electorales y el pleno municipal de Getxo

Como se puede apreciar en los cuadros siguientes, según los resultados electorales de mayo del 2003 y teniendo en cuenta los votos emitidos por la ciudadanía, a Getxo Bizia le corresponde un puesto de concejal y el pleno municipal de Getxo, utilizando el sistema habitual de reparto de representatividad (Ley de D'Hont), debe de formarse así: 11 PNV-EA (PNV 9 y EA 2), 9 PP, 3 PSE, 1 EB-Berdeak, 1 Getxo Bizia. Habiendo 25 escaños en el pleno municipal de Getxo, el segundo miembro de Ezker Batua debe dejar el puesto que ahora ocupa para que pueda acceder al mismo la representante de Getxo Bizia.


	Jasotako boto kopurua	Getxo Bizia-rekin	Getxo Bizia gabe
EAJ-EA	20.421	11	11
PP	16.102	9	9
PSE-EE	6.351	3	3
EB-IU	3.538	1	2
Getxo Bizia	2.756	1	-
Aralar	1.294	0	0

D'Hondt legearen arabera

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
EAJ-EA	20.421	10.210	6.807	5.105	4.084	3.403	2.917	2.552	2.269	2.042	1.856
PP	16.102	8.051	5.367	4.025	3.220	2.683	2.300	2.012	1.789	1.610	1.463
PSE-EE	6.351	3.175	2.117	1.587	1.270	1.058	907	793	705	635	577
EB-IU	3.538	1.769	1.179	884	707	589	505	442	393	353	321
Getxo Bizia	2.756	1378	918	689	551	459	393	344	306	275	250

Modu interesatuan hamaika aldiz errepikatu dute EAJ, EA eta EBk ilegalizazioaren aurka daudela, baina eurak ezin dituztela legeak saihestu. Gustatuko litzaiguke ilegalizazioa eta beste hainbat injustiziaren aurka, autodeterminazioa eta pertsona ororen eskubideen alde desobedientzia ekimenak eurekin konpartitzea, baina desobeditzeko prest ez badaude, erabil ditzatela indarrean dauden legeak ilegalizazioa desaktibatzeko!

PNV, EA y Ezker Batua han repetido insistentemente de forma interesada que están en contra de la ilegalización, pero que no pueden evitar las leyes. Sería estupendo poder compartir con estas formaciones actividades de desobediencia en contra de la ilegalización y otras injusticias, a favor de la autodeterminación y por los derechos de todas las personas, pero si no están dispuestos a desobedecer, ¡que utilicen por lo menos las leyes vigentes para desactivar la ilegalización!



Dimisioa eta izendapen berria

Hainbat herri plataformek eta Getxo Biziak egiten duen proposamena bideragarria da legez (LOREG 5/1985, 182.2 artikulua).

Getxo Biziari dagokion ordezkaritza aintzat hartuz udal batzarretik kanpo geratzen den hautagaiak, kasu honetan Ezker Batuko bigarrena Aitor Lafuente jaunak dimisioa aurkeztu behar du. Ondoren eta Ezker Batuak izendatuko duen arduradun juridiko baten bitartez, dimititu duenaren atzean zerrendan dauden hautagai guztiek uko egingo diote postu horri. Azkenik aipatu ordezkari juridikoak Getxo Bizia hautagai zerrendako burua, Pili Askorbebeitia izendatzen du zinegotzi posturako.

Formula hau aplikatzekotan izan zen Lizartzan, baina EAJ-k azkenean atzera egin eta nahiago izan du PP eta PSOE-k eragindako bazterketa zibil eta politikoa bere hartan utzi.

Getxon Ezker Batuaren esku dago ordezkaritza zilegia ezartzeko pausua ematea eta egun udal gobernua osatzen duten EAJ, EA eta EB-k publikoki onartu beharko dute Getxo Biziari dagokion postuaz ari direla baliatzen 25 hautetsi arteko 13-ko gehiengo izateko. Hiru alderdiek ardura handia dute Getxo Bizia pairatzen ari den egoerarekiko eta konponketa errezteko pausuak eman ditzakete. Borondate kontua baino ez da.

Dimisión y nuevo nombramiento

La propuesta de tantas y tantas plataformas populares y de Getxo Bizia es legalmente viable (LOREG 5/1985, artículo 182.2).

Tras el reconocimiento de su representación a Getxo Bizia el candidato que queda fuera del pleno municipal debe presentar la dimisión, en este caso el segundo miembro de Ezker Batua Aitor Lafuente. Posteriormente y mediante un responsable jurídico a nombrar por Ezker Batua, todos los candidatos y candidatas siguientes en la lista al dimisionario deben presentar la renuncia al puesto. Por último el citado responsable jurídico nombra a Pili Askorbebeitia, cabeza de lista de Getxo Bizia, para el puesto de concejal.

Esta fórmula estuvo a punto de aplicarse en Lizartza, pero finalmente el PNV prefirió echar marcha atrás y dejar en donde estaba la marginación civil y política auspiciada por PP y PSOE.

En Getxo está en manos de Ezker Batua dar el paso para establecer la representación legítima, y PNV, EA y EB, que forman el actual gobierno municipal, deben reconocer públicamente que se están valiendo del puesto que corresponde a Getxo Bizia para tener esa mayoría de 13 en un pleno de 25 miembros. Los tres partidos tienen una responsabilidad especial a la hora de facilitar la solución a la situación que padece Getxo Bizia. Es sólo cuestión de voluntad política.

Getxo biziari dagokiona orain!!!

